



KANALAK



Gure zerbitzua, alde batetik, gazteei eskainiko diegu, parrandaz-parranda joateko aukera merkea izango dutelako. Ordu-tegi ezberdinetako zerbitzuak eskainiko ditugu eta behar

izanez gero, zerbitzu ugariago eta handiago bat eskaintzeko prest egongo ginateke.

Bezeroak erakartzeko hainbat ekintza jarriko ditugu abian. Hasteko, propaganda egingo dugu, internet bidez. Webgune bat sortuko dugu, www.euskokar.eus izeneko. Bertan, informazio desberdina publikatuko dugu. Aldi berean, *Instagram*, *Twitter* eta *Facebook* sare sozialak erabiliko ditugu.

Zerbitzu pertsonalagoa nahi izanez gero, lokal bat izango dugu Zarautzen, Abendañon zehazki. Honi esker, bezeroek edozein motatako galderak egiteko aukera izango dute eta harreman estuagoa izango du. Bestetik, karabanak ikusteko eta gidatzeko aukera ere izango da.